

ZATOK ESPIRITU SANTUA

Doinua: "Iparragirre"

1

Hemen gabilitza arnas-estuka
etxetik kanpo kalean,
geure barrutik beti igeska
ase nahirik azalean.
Zatok Espiritua
Jesusek bialdua,
zaindu zure itzalean;
zure lankide izan gaitezán
guk ahal dogun apalean.

2

Pozik bizi nahi eta tristura,
ondo beharrez, negarra...
nahi dogun dana gustau ta egin
ta ondoren zoritxarra.
Zatok Espiritua
bakarra ta santua,
entzun gure deadarra:
Erakutsi Zeuk zorionaren
iturri garbi bakarra.

3

Jaunak eginak gara guztiok
zoriontsu izateko,
nahizta askotxok aukeratu gaur
nahibeste aita-ordeko.
Zatok Espiritua
ta biztu guran sua,
egin gu zure antzeko;
dogunaz pozik bizi gaitezán
eta ez beti eskeko.

4

Libre izan nahi eta katigu
gura doguna eginez,
zoriontsu izan gura ta
ustelduta atseginez.
Zatok Espiritua
ta luzatu eskua,
iturrira eraginez;
galdu baino lehen, biztu gagizuz
Jainkoaren maite-minez.

5

Zarata asko dogu kanpotik
ta ezin sartu barruan,
traste gehiegi pilatu dogu
Jaungoikoaren lekuan.
Zatok Espiritua
goiko arnas freskua,
hartu gu zure eskuan;
eta ez bedi inortxo sartu
zeurea dan esparruan.

6

Izan gura ta ezin izana
izan behar genduana,
Espirituak lagundu ezik
ezin bete geure lana.
Zatok Espiritua
laguntza segurua,
emoiguzu dohai bana:
Zeuk lagunduta heldu gaitezán
Jainko Aita-Amagana.

A.Martzel